



### Golkoko Gerraren sindromea

**P**ertsiar Golkoko gerra amaituta, EEBBetako soldadugari gaixo jarri dira azken urteetan. Bertako ejerzitoaren artxiboetan gaixotasunen kausak azaltzen dituzten dokumentuak



Iraken aurkako gerran parte hartu zuten milaka soldaduk oinazeak eta osasun-kalte larriak izan dituzte.

omen daude, baina horiek ezkutuan gorde dira, segurtasun-arrazoiak direla medio. Hala ere, ikertzaileak kausa horiek zeintzuk diren argitzeko gertu daude erreportaje batek dioenez. Washington DC-ko Medikuntza Institutuak kaleratu duen txosten baten arabera, EEBBetako tropek egokiak ez diren zenbait inokulazio eta droga hartu zituzten Golkoko gerran. Ondo-

rioz, etorkizunean ejerzitoak unitate bakoitzarentzat osasun-programa bereziak jarri behariko ditu martxan.

Iraken aurkako gerran parte hartu zuten milaka soldaduk oinazeak eta osasun-kalte larriak izan dituzte. Golkoko sindromea, beraz, benetokotzat jo daiteke, eta ez, orain arte sinestarazi nahi izan duten bezala, asmakeriatzat. Arma kimikoak, inokulazioen efektuak eta pestizidak izan daitezke sindromearen kausa nagusiak.

### Pisu gutxirekin jaiotzearen arriskua

**B**ihotzeko gaixotasunaren jatorria aztertzerakoan, lan-baldintza kaskarrak, estresa, tabakoa eta beste zenbait faktore hartzen da kontuan. Berriki jakin dugunez, ordea, arrisku-faktore garrantzitsuenetakoa jaiotzean pisu gutxi izatea omen da.

Southamptongo Unibertsitateko David Barker epidemiologoak bihotzekoari buruzko teoria polemikoa eman du argitara. 80. hamarkadaren amaieran hasi ziren Barker eta bere taldea ikerketak egiten eta berehala konturatu ziren desnutrizioak fetuaren fisiologiari kalte egiten diola.

Beste talde batek hamar urteko ikerketa-lana egin du Caerphillyko (Ga-



Bihotzeko gaixotasunak izateko arrisku gehiago dute jaiotzean 2,5 kilo baino gutxiago pisatu eta hazi ondoren gizenak dauden pertsonak.

les) 1.200 gizonekin. Emaitzek adierazten dutenez, bihotzeko gaixotasunak arruntagoak dira pisu gutxirekin jaiotzearen artean. Baina talde honen ikerketaren arabera, txikiagi jaiotzeak eta hazi ondoren gizenak dauden pertsonak dira bihotzekoak jasateko arrisku handiena dutenak.

Barkerrek antzeko ikerketa egin zuen Indiako hegoaldean eta emaitzak berdinak izan ziren. Bihotzeko gaixotasunak izateko aukera gehiago dute jaiotzean 2,5 kilo baino gutxiago pisatzen dutenek, 3,1 kilotik gora pisatzen dutenek osasun hobea dutelarik zahartzaroan.

ru hori zein mailatan lortzen den. Aurpegian erditik gorakoa kaltetu edo hausteko, larruazal iletsua zauritzeko edo garezurreko traumatismo larria izateko arriskua asko jaisten da kaskoa jantzita eramanez gero automobila jota istripua izaten denean; baita istripua sei urte baino gutxiagoko umeak izaten duenean ere. Dena den, kaskoak ahoko, ezpaineneko edo beheko barailako zauri edo traumatismoetatik ez du babesten.



Motozaleen kaskoak ez du ezpaineneko edo beheko barailako zauri edo traumatismoetik babesten.

### Kaskoaren babesa

**M**otozaleek erabiltzen dituzten kaskoen helburua babestea da, noski, eta duela gutxi Estatu Batuetan 3.400 moto-istriputan neurtu egin dute helbu-

